



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

PRENTSA OHARRA
2008ko apirilaren 20a

ARGENTINAKO KONGRESUKO PRESIDENTEORDEA EUSKADIN BISITAN DIPUTATUEN ORDEZKARITZA BATEKIN BATERA

Argentinako Nazioaren Diputatuen Ganbera Ohoragarriko presidenteordea, Patricia Vaca Narvaja, diputatu-talde batekin batera, hurrengo egunetan Euskadira etorriko da bisitan Euskadiko Ganberako lehendakari Izaskun Bilbao egin zion gonbidapenari erantzunez; gonbidapen hori lehengo irailean egin zion Argentinara egin zuen bidaia ofizialean. **Argentinako diputatuek Eusko Legebiltzarra ezagutzeko parada izango dute eta esperientziak trukatzeko modua Euskadiko ordezkari politikoekin. Hartarako, zenbait bilera egingo dituzte Eusko Legebiltzarrak antolaturik.**

Argentinako ordezkariak Euskadira bisitan etorriko dira apirilaren 20tik 23ra eta programa trinko bat burutuko dute hainbat bisita eta bilera eginez. Adibidez, Juan Jose Ibarretxe lehendakariarekin eta Eusko Jaurlaritzako sail batzuetako sailburuekin bilduko dira, baita Eusko Legebiltzarreko Mahaiko ordezkariarekin ere.

2008ko apirilaren 21ean (astelehena), Eusko Legebiltzarreko lehendakariarekin batera, Juan Jose Ibarretxe jaunak egingo die harrera Ajuria Enea Jauregian. Gero Izaskun Moyua Emakundeko zuzendariarekin bilduko dira eta, eguneko jardunari amaiera emateko, Eusko Legebiltzarra bisitatuko dute. Hemen Legebiltzarraren irekitze instituzionalaren eredia eta ADL-s sareko lankidetzaren eredia ezagutuko dituzte; gainera, *Terrorismoaren Biktimei buruzko Erakusketa* ere bisitatuko dute, herritarrentzako zabalik dago-eta.

Apirilaren 22an (asteartea) EITBren Bilboko egoitza berrira joango dira, baita Gernikako Batzar Etxera ere, non Bizkaiko Batzar Nagusietako lehendakari Ana Madariagak hartuko dituen. Gero Urdaibaiko biosfera-erreserbara joango dira Esther Larrañaga Ingurumen sailburuarekin batera.

Azken egunean, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo sailburu Xabier Balzak Euskadiko segurtasun-eredua erakutsiko die Erandioko egoitzan. Euskadiko bisitaldiari amaiera emateko, Euskadiko industria-politika eta enpresa-sortzeari buruzko politika ezagutuko dituzte Ana Agirre Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarekin egingo duten bileran (Bilboko SPRIn).





NOTA DE PRENSA
20 de abril de 2008

LA VICEPRESIDENTA DEL CONGRESO ARGENTINO VISITA EUSKADI JUNTO CON UNA DELEGACIÓN DE DIPUTADOS

La vicepresidenta de la Honorable Cámara de Diputados de la Nación de Argentina, D.ª Patricia Vaca Narvaja, junto con un grupo de diputados, visitará durante los próximos días Euskadi en respuesta a la invitación cursada por la presidenta de la Cámara vasca, D.ª Izaskun Bilbao, en su viaje oficial a tierras argentinas el pasado mes de septiembre. Los diputados argentinos tendrán ocasión de conocer la sede del Legislativo vasco e intercambiar experiencias con representantes políticos vascos a través de una serie de reuniones institucionales que el Parlamento Vasco les ha concertado.

Los representantes y las representantes argentinos visitarán Euskadi del 20 al 23 de abril con un apretado programa que incluye visitas y encuentros con el lehendakari, D. Juan José Ibarretxe, y los consejeros de varios departamentos del Gobierno Vasco además de los representantes de la Mesa del Parlamento Vasco.

El lunes día 21 de abril de 2008, acompañados por la presidenta del Parlamento Vasco, serán recibidos por el lehendakari D. Juan José Ibarretxe en el Palacio de Ajuria Enea. Posteriormente se reunirán con D.ª Izaskun Moyúa, directora de Emakunde, y finalizarán la jornada con la visita a la sede del Parlamento Vasco, donde conocerán el modelo de apertura institucional del Parlamento y el modelo de cooperación en red ADL-s, además de visitar la *Exposición sobre las Víctimas del Terrorismo* que está abierta al público.

El martes 22 de abril visitarán la nueva sede de EITB en Bilbao, así como la Casa de Juntas de Gernika, donde les recibirá la presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, D.ª Ana Madariaga. Posteriormente se trasladarán a la reserva de la biosfera de Urdaibai de la mano de la consejera de Medio Ambiente, D.ª Esther Larrañaga.

El último día el consejero de Interior del Gobierno Vasco, D. Xabier Balza, les mostrará el modelo vasco de seguridad en la sede de Erandio, y finalizarán su visita por Euskadi conociendo la política industrial y de emprendimiento de Euskadi en una reunión con la consejera de Industria, Comercio y Turismo, D.ª Ana Aguirre, en la sede de SPRI de Bilbao.

